

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASTIDAKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bastidako Udalaren 2006ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokora bertaratu diren kideek.

Udalaren eta bere Sozietate Publikoaren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze eta finantza eragiketa, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Berebat, udalerrian golf zelaia eraikitzekeo prozesua berraztertu du.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Udalerrian golf zelaia eraikitzea izapidetzean, Udalak Labastida Gestión Municipal, SL izeneko sozietate publikoa sortu du eta honi hainbat lursail laga zaizkio helburu horretarako; ordea, lursail horien zati bat Erabilera Publikoko Mendian daude barne hartuak eta besterenezin eta enbargaezinak direnez gero, ez daitezke mendien legeriak aurreikusten duenaz besteko helburuarekin ez saldu, laga edo erabili.

Udalaren 2006ko ekitaldiaren aurrekontu orokorrek eta bere likidazioak ez dituzte udal sozietateari dagozkionak jasotzen. Halaber, ez dira horren egoerak ez urteko kontuak ekitaldi horretako Kontu Orokorrean barne hartu.

kontratazioaren atalean Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratua urratu da guztira 1.798.205 euro egin dituzten zazpi esleipenetan, horretarako kreditu egoki eta behar hainbatekorik ez zegoela; gainera, publizitate eta lehia printzipioak urratu dira 168.000 euroko esleipenean.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez eta akats bat azpimarratu du ibilgetuko elementuen ondasun zerrenda eguneraturik ez izateagatik eta zenbait doiketa egin ditu kontabilitatean

zorpetutako hainbat eskubide eta gasturi dagokionez, ekitaldi itxieran erregistratu gabe zeudenak eta Diruzaintza Geldikina gehitzen dutenak.

Sozietate Publikoari dagokionez, Epaitegiaren iritzira urratu egin du Sozietateak ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, izan ere, Batzorde Orokorrak jada sortua zegoen merkataritza sozietate batean % 20ko partaidetza izatea erabaki baitzuen Udaletik jasotako ondasun ibilgetuen ekarpen bitartez, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe. Labastida Gestión Municipal, S.L. Sozietate Publikoaren administratzaileek ez dituzte Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta 2005 eta 2006ko ekitaldietako emaitzaren aplikazio proposamena egin; honek Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legea urratzen du.

Urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak ez dezake iritzirik eman, aurreko idatz-zatian adierazitako mugaketa dela-eta.

Amaitzeko esan behar da, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu dituela aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio arloetan.